

2022/2023 ikasturterako **TARIFAK**

Horien ordainketa familiaren diru-sarreraren arabera egingo da.

+ Hileko gehieneko tarifak honako hauek dira:

Eskolatzeta: 173 € Jantokia: 95 €

+ Eskolatzeko unean ezarriko dira tarifak, eta 10,6 hileko ordainduko dira ikasturtean zehar.

+ **Murrizketak** honela egin ahal izango dira:

PER CAPITA ERRENTAREN TARTEAK TRAMOS DE RENTA PER CAPITA		ESKOLATZEA ESCOLARIDAD		JANTOKIA COMEDOR		ESKOLATZEA+JANTOKIA ESCOLARIDAD+COMEDOR	
Desde	A	**	*	**	*	**	*
Mayor de 15.000		173	154	95	84	268	238
12.400,01	15.000	144	127	95	84	239	211
10.700,01	12.400	108	95	95	84	203	179
9.300,01	10.700	79	69	95	84	174	153
7.980,01	9.300	57	0	84	66	141	66
6.650,01	7.980	35	0	84	66	119	66
5.500,01	6.650	0	0	66	52	66	52
4.500,01	5.500	0	0	58	42	58	42
3.350,01	4.500	0	0	56	32	56	32
Menor o igual a 3.350		0	0	52	25	52	25

** Ohiko familiak.

* Guraso bakarreko familiak edo guraso bakarreko egoeran daudenak.

+ Gainera, familiek Barañaingo Udal Haur Eskoletan bi seme-alaba edo gehiago matrikulatuta dituztenean, bigarren eta hirugarren seme-alaben eskolatzeta-tarifa % 50 murriztuko da. Anai-arreba bik edo gehiagok jantokia erabiltzen badute, bigarrenak eta hurrengoek gutxieneko tarifa ordainduko dute.

+ Arrisku sozial edo psikosozialeko faktoreen eraginpean dauden eta garapenean atzerapena duten haurrentzako kuoten salbuespenak, egoera ekonomikoaren eta familia-egoeraren arabera.

→ Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2021eko aitopeneko familia-unitatearen zerga-oinarria (1) familiako kideen kopuru osoarekin (2) zatituta ateratzen den kopurua hartzen da **urteko per capita errentatzat**. Kasu guztietan, bi gurasoen deklarazioa hartuko da kontuan, banantze, dibortzio edo ezkontzaz kanpoko seme-alaba bakoitzeko legezko neurrien epaia dagoenean izan ezik (kasu horietan, haurraren zaintza eta jagoletza duen gurasoaren adierazpena hartuko da kontuan). Zaintza eta babespea ez duen gurasoari elikagaiengatik urteko kuotak kenduko zaizkio.

(1) Ondorio praktikoetarako, zerga-oinarria honako hau dela ulertuko da: Nafarroako Foru Komunitatean 2021. urtean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 507, 8810, 8808 eta 529 laukien batura, 511, 822, 708 eta 578 laukiak kenduta, edo Estatuko gainerako lekuetan dauden lauki baliokideak.

(2) Familia-unitateko kide-kopuruari dagokionez, kontuan hartuko dira matrikula egiteko unean egiaztatuta geratzen direnak, gurasoak edo tutoreak eta haien ardurapeko seme-alabak zenbatuta. Desgaitasuna duten seme-alabek (% 33 edo handiagoa) bikoitza zenbatuko dute.